

## ARABAKO FORU ALDUNDIA

## DIPUTACIÓN FORAL DE ÁLAVA

## Administrazio Xedapenak

## Diputatuen Kontseiluaren Foru Dekretuak

## GIZARTE ZERBITZUEN SAILA

3042

**19/2013 FORU DEKRETUA**, ekainaren 4ko Diputatuen Kontseiluarena, aldatzen duena Diputatuen Kontseiluaren urtarrilaren 29ko 3/2013 Foru Dekretua, zinen bidez Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeak ematen dituen zerbitzuen prezio publikoak arautzen diren.

2013ko urtarrilaren 29an onartu zuen Diputatuen Kontseiluak Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeak eskaintzen dituen zerbitzuen-gatiko prezio publikoei buruzko arautegia.

Arautegi horretan hutsak antzeman direnez gero, aldatu egin behar da lehentxeago aipatutako foru dekretua, idatzi gabeko zenbait alderdi idazteko eta interpretazio hutsak ekar ditzaketenak argitzeko.

Horregatik, diputatu nagusiaren apirilaren 22ko 85/2013 Foru Dekretuak ezarritakoarekin bat etorritz, Gizarte Zerbitzuen Saileko titularrak ez dagoenez, haren zereginetan Herrilan eta Garraio Saileko foru diputatuak proposatuta, Gizarte Ongizateko Foru Erakundearen Administrazio Kontseilua jakinaren gainean dagoela, eta Diputatuen Kontseiluak gaur bertan egindako bilkuran gaia aztertu ondoren, honakoa

## XEDATZEN DUT

LEHENENGOA: 3/2013 Foru Dekretua, urtarrilaren 29koa, aldatzea, honakoetan:

Bat.- Ezabatu egiten da 23. artikulua 4. paragrafoaren a) idatz zatiaren bigarren gidoia ("Errenta").

Bigarrena.- Honako testu hau izango du xedapen gehigarri bakarreko 1. paragrafoak ("aparteko egoerak"):

1. "Zerbitzuen erabiltzaileen egoera sozioekonomikoa berezia izan litekeela jakinik, Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen Administrazio Kontseiluak, bidezko arloko zuzendariordetza teknikoak arrazoitutako txostena eman ondoren, foru dekretu honen 9. artikulua 1. paragrafoan jasotako hobaririk ez duten zerbitzuetarako hobari partzialak edo totalak zehaztu ahal izango ditu, bai eta foru dekretu honetan xedatutako hobarien zenbatekoak, salbuetsitako zenbatekoak eta erabilera libreko zenbatekoak areagotzea ere".

Hirugarrena.- Hona hemen I. eranskinaren 27 eta 27.1 tarifen kontzeptuei dagokien testua:

27 tarifa. "Erabiltzaile iraunkor ez diren pertsonentzako zerbitzu osagarriak" eta 27.1 tarifa. "Otordu zerbitzua adinekoentzako eta ezinduentzako egoitza zentroetan eta adinekoentzako bizitoki zerbitzuetan (etxebizitza komunitarioak) eta ezinduentzako zentro okupazionalak".

Laugarrena.- II. eranskinen ("Hobariak") "Familia errenta" kontzeptuari egiten zaizkion aipamenak ordezkatu egingo dira, eta haien ordez "Familiaren gaitasun ekonomikoa" kontzeptua idatzi.

BIGARRENA: foru dekretu honek ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera izango du indarra eta aldatutako foru dekretuaren ondorio berak eragingo ditu, salbu eta lehenengo xedapenaren 3. paragrafoan xedatutakoari dagokionean. Han xedatutakoak argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera izango du eragina.

HIRUGARRENA: foru dekretu hau ALHAOn argitaratzeko agintzea.

Vitoria-Gasteiz, 2013ko ekainaren 4a.- Diputatu nagusia, JAVIER DE ANDRÉS GUERRA.- Gizarte Zerbitzuen Saileko jarduneko diputatua, ALICIA RUIZ DE INFANTE AGUIRRE.

## Disposiciones Administrativas

## Decretos Forales del Consejo de Diputados

## DEPARTAMENTO SERVICIOS SOCIALES

3042

**DECRETO FORAL 19/2013**, del Consejo de Diputados de 4 de junio, que modifica el Decreto Foral 3/2013, de 29 de enero, regulador de los precios públicos de los servicios provistos por el Instituto Foral de Bienestar Social.

Con fecha 29 de enero de 2013 por el Consejo de Diputados se aprobó la Normativa reguladora de los precios públicos de los servicios prestados por el Instituto Foral de Bienestar Social.

Advertidos errores en la misma, se hace preciso proceder a la modificación del Decreto Foral anteriormente citado, en el cual se recojan algunos aspectos que han sido obviados en éste y aclaren conceptos que pudieran dar lugar a errores interpretativos.

En su virtud, a propuesta de la Diputada de Obras Públicas y Transportes, en funciones de la titular del Departamento de Servicios Sociales por ausencia de la misma, de conformidad con lo establecido en el Decreto Foral del Diputado General 85/2013, de 22 de abril, habiendo sido informado el Consejo de Administración del Instituto Foral de Bienestar Social y previa deliberación del Consejo de Diputados en sesión celebrada en el día de hoy,

## DISPONGO

PRIMERO: Modificar el Decreto Foral 3/2013, de 29 de enero, en los siguientes términos:

Uno.- Se suprime el segundo guión, de la letra a) del apartado 4 del artículo 23 ("Renta").

Dos.- El apartado 1 de la Disposición adicional única ("Situaciones de carácter extraordinario"), queda redactado de la siguiente forma:

1. "En atención a las especiales circunstancias sociales y/o económicas que puedan concurrir en las personas usuarias de los servicios, el Consejo de Administración del Instituto Foral de Bienestar Social, previo informe motivado de la Subdirección Técnica del Área correspondiente que lo justifique, podrá señalar bonificaciones parciales o totales en servicios exceptuados de bonificación contemplados en el artículo 9, párrafo 1, un incremento en las cuantías bonificadas, en las cuantías exentas o en las cuantías de libre disposición previstas en el presente Decreto Foral"

Tres.- Los conceptos de las tarifas 27 y 27.1 del Anexo I quedan redactados de la siguiente forma:

Tarifa 27. "Servicios complementarios destinados a personas usuarias no permanentes de dichos servicios", y Tarifa 27.1. "Servicio de comida en centros residenciales para personas mayores y para personas con discapacidad, en servicios de alojamiento -vivienda comunitaria- para personas mayores y en Centro Ocupacional para personas con discapacidad."

Cuatro.- Todas las referencias al concepto "Renta Familiar" contenidas en el Anexo II ("Bonificaciones"), son sustituidas " por "Capacidad económica familiar".

SEGUNDO: Este Decreto Foral entrará en vigor el día siguiente de su publicación en el BOTHA y surtirá los mismos efectos que el Decreto Foral modificado, con la única excepción de la previsión contenida en el apartado 3 del Dispongo primero que surtirá efectos desde el día siguiente a su publicación.

TERCERO: Ordenar la publicación de este Decreto Foral en el BOTHA.

Vitoria-Gasteiz, 4 de junio de 2013.- El diputado general, JAVIER DE ANDRÉS GUERRA.- Diputada de Servicios Sociales en funciones, ALICIA RUIZ DE INFANTE AGUIRRE.